

BIZTANLERIA

DEFINIZIOAK:

- **BIZTANLERIA:** Herri, autonomia-erkidego, herrialde eta bestelakoetan bizi den pertsona multzoa da.
- **UDAL ERROLDA:** Herritarren erregistroa da. Udaletxe (ayuntamiento) bakoitzak berea egiten du eta urtero berritzen da. Erroldan, herriko biztanle-kopurua, egoera ekonomikoa... biltzen dira.
- **ZENTSUA:** herrialde batek une jakin batean dituen biztanle guztien erregistroa da. Zentsuan ere jasotzen dira biztanleriaren eta egoera ekonomiko eta sozialaren inguruko datuak, baina udal-erroldan baino gehiago; adibidez: sexua, adina, egoera zibila, erabiltzen duten hizkuntza, hezkuntza-maila, ezaugarri ekonomikoak, etxebizitza mota, etab. Espainian hamar urtean behin egiten da, eta, 1981etik, 1 zenbakiaz bukatutako urte guztietan.
- **ERREGISTRO ZIBILA:** herri bateko jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak idazteko erabiltzen da.

1. ARIKETA: Aukeratu erantzun zuzena.

- Herri, autonomia-erkidego edo nazio bateko biztanleria multzoa da.

Biztanleria	Errolda	Zentsua
-------------	---------	---------

- Udaletxe bakoitzak urtero egiten du herri bateko biztanle-kopurua kalkulatzeko.

Biztanleria	Errolda	Zentsua
-------------	---------	---------

- Hamar urtetik behin egiten da nazio edo herrialde bateko biztanle-kopurua kalkulatzeko.

Biztanleria	Errolda	Zentsua
-------------	---------	---------

- Herrialde edo nazio bateko biztanleria kopurua, sexua, adina, egoera zibila (ezkontuta edo ezkondu gabe dagoen), erabiltzen den hizkuntza, hezkuntza maila... jasotzen dira.

Biztanleria	Errolda	Zentsua
-------------	---------	---------

2. ARIKETA: Aurkitu informazioa interneten eta erantzun galderak. Informazioa aurkitzeko garaian jarraitu pistak. (Pistak azpimarratuta dituzue interneten informazioa a)

EUSTAT: Euskal Estatistika Erakundea da eta Euskal Autonomia Erkidegoko datuak jasotzeaz arduratzen da.

- EUSTAT-en arabera 2019. urtean Gasteizen zenbat pertsona bizi ziren (biztanleria)?
- EUSTAT-en arabera 2016. urtean ehuneko (%) zenbat pertsona ziren euskaldunak Gasteizen?

INE: Instituto Nacional de Estadística da eta Espainiako zentsuak egiteaz arduratzen da.

- INE-ren datuen arabera 2011. urtean eginiko zentsuaren arabera zein zen Espainiako biztanleria?

JAIOTZA-TASA ETA HILKORTASUN-TASA

- **JAIOTZA-TASA:** leku eta garai jakin batean jaiotzen den pertsona-kopurua da.
- **HILKORTASUN-TASA:** leku eta garai jakin batean hiltzen den pertsona-kopurua da.

Berezko hazkunde positiboa: Heriotza baino jaiotza gehiago baldin badaude.

Berezko hazkunde negatiboa: Jaiotza baino heriotza gehiago baldin badaude.

3. ARIKETA: Euskal Autonomoa Erkidegoan (E.A.E.-n) 2016. urtean 18.220 haur jaio ziren eta 21.223 hil. Hazkundera positiboa ala negatiboa da?

a) Hazkundera positiboa da pertsona gehiago jaio direlako.

b) Hazkundera negatiboa da pertsona gehiago hil direlako.

MIGRANTEAK

IKUSI BIDEO HAU:

MIGRANTEAK: EMIGRATZAILE ETA INMIGRATZAILEAK DIRA.

4. ARIKETA: Bete hutsuneak:

- Leku eta garai jakin batean izandako jaiotza-kopurua eta heriotza-kopurua _____ eta _____ dira.
- _____ pertsonak leku batetik beste batera bizitzera joatea da.
- _____ pertsonak leku batera bizitzera etortzea da.

5. ARIKETA: MUNDUAN 60.000.000 ERREFUXIATU BAINO GEHIAGO DAUDE!!!

- Entzun lasai-lasai abesti zoragarri hau. Ea gustatzen zaizuen!